



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

HERNANI BHI

Ikastetxearen kodea:

013012

Data:

2025(e)ko maiatzaren 28(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Hernani BHI Hernaniko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoa da. Hiru eraikinetan banatuta dago: Santa Barbara, Harrobi eta Agustin Iturriaga. Bere hezkuntza-eskaintzak honako etapa hauek hartzen ditu: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa (hiru modalitatetan: Giza eta Gizarte Zientziak; Zientziak eta Teknologia; eta Orokorra). Horrez gain, Zeregin Ikasketa Gela tailerra eta Gela Egonkorra baditu.

2022-2023ko ikasturteko ikasleen kopurua Batxilergoan 220 ikasle, DBHn 574 ikasle, ZIG gelan 8 ikasle eta GE gelan 5 ikasle izanik. Klustroa, berriz, 110 irakasle inguruk osatzen dute. Hezkuntza modalitatea D eredua da.

Ikastetxea Hernanin dago, Santa Barbara auzoan kokatuta, Donostialdean. Udalerririk 20.375 biztanle ditu (2023ko apirilean), eta industria eta energia dira jarduera ekonomiko nagusia (biztanleria aktiboaren % 50,6), zerbitzuen (% 45,6), eraikuntzaren (% 3,6) eta nekazaritzaren (% 0,3) gainetik. 2020an biztanleko BPG 39.840 €-koa zen, Langabezia-tasa, berriz, % 8,6koa da gaur egun.

Biztanle gehienak udalerrian bertan jaio badira ere, atzerritar jatorriko biztanleria handituz joan da urtez urte, eta 2022an % 11,3ra iritsi da. Horregatik, azken urteetan ikastetxeko atzerritar jatorriko ikasleak gora egin du. Horren ondorioz, hezkuntza hizkuntza indartzeko neurriak hartzeraz bultzatu da, eta irakasleak kulturartekotasuna bultzatzera, kultura anitzeko gizarte irekia sortzeko helburuarekin.

Aspaldi hasi zen ikastetxea hainbat prozesutan tresna digital egokiak erabiltzeko pausoak ematen. Ikastetxearen lehenengo WEB orria, dokumentuak modu digitalean ikastetxearen sare-lokalean gorde, komunikazioa posta elektronikoaren bidez eginez, ikasleentzat zenbait informatika gela antolatuz, etab.

2011-12 ikasturtean Eskola 2.0 programarekin 1. eta 2. DBHko gelak ordenagailu eramangarriak hornitu ziren eta ikasgela guztiak arbel digitalekin hornitzeko prozesua jarri zen martxan.

2013-14 ikasturtetik ikastetxeak Google-en domeinu propioa dauka eta kudeaketa errazteko plataforma honetako aplikazioak erabiliz egiten dugu lan. Lehen urratsak ikasturte honetan eman ziren zuzendaritzaren prozesuetatik hasita. Ondoren sistema hori ikas-irakas prozesuetara zabaltzen da. Egun, ikasle eta irakasle guztiok ikastetxeko domeinupean lan egiten dugu eta Google-en hezkuntzarako aplikazioak erabiltzen ditugu bai irakaslearen artean eta baita ikasleekin ikas-irakas jardueretan.

2014-15 ikasturtean Sare Hezkuntza proiektura batu zen ikastetxea. Honek bultzada handia suposatu zuen digitalizazioaren erabileran, irakasleen formakuntzan eta azpiegituren eguneratzean.

Bitarte honetan, 2013/14 eta 2016/17 ikasturteen artean oinarritzeko, ertain eta goi mailako IKT heldutasuna lortu zituen ikastetxeak.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxearen hiru eraikinak zuntz optikoaren bidez lotuta daude, sare lokal bakar bat osatuz.

Internet linea bakarra daukagu eta bi zerbitzari.

Wifi estaldura ikastetxe osoan daukagu. Hori bai, konektatuta dagoen gailu kopurua oso handia denez, nabegazioa asko moteltzen da.

Irakaskuntzarako erabiltzen diren gela guztietan ordenagailu bat eta proiektore bat daude, eta gehienetan arbel digitala eta bozgorailuak.

Bost informatika gela dauzkagu eta 110 ordenagailu inguru daude hauetan.

Ikasturte honetan lehenengo aldiz ikasle guztiek Hezkuntzak emandako ordenagailu eramangarri bat daukate, bai etxean eta bai ikastetxean erabili ahal izateko. DBHko ikasleek Chromebooka daukate eta batxilergokoek Windows Sistema Eragilea duten PCak. Talde-gela guztietan armairu bat dago bertan ordenagailua utzi eta kargatu ahal izateko.

DBH1, DBH2 eta DBH3n ikastetxearen chromebookak dauzkate ikasgeletako armairuetan Hezkuntzako ordenagailua etxean utzi eta bueltara ibiltzeko beharrik ez edukitzeko. Arazo asko ekiditen dira horrela.

ZI gelan eta Gela Egonkorrean, Hezkuntzak emandako ekipamendua eta ikastetxearen chromebookak dauzkate. Gela hauetako ikasleek ez daukate Hezkuntzak banatutako ordenagailurik.

Irakasleen erabilerarako Irakasle geletan eta mintegietan ordenagailuak daude. 2020-21 ikasturtean irakasleentzako 91 ordenagailu eramangarri jaso zituen ikastetxeak. Momentu honetan ez dira nahikoak irakasle guztientzat. Hardware ezaugarrien aldetik (prozesadorea, disko gogorra, RAM memoria) egokiak izan arren, arazo asko ematen dituzte.

Hezkuntzaren inbentarioaz gain, finko kokatuta dauden ordenagailu guztien inbentario propioa daukagu kalkulu-orrietan.

Konponketa eskaerak galdetegi baten bidez bideratzen ditugu. Formulariotik sortutako taula, informatikako mantenuaren arduradunek kudeatzen dute eta irakasleek ikusi egin dezakete.

Ikasleen gailuen kudeaketa, Hezkuntzaren aginduak zehazten digu. Hala ere, ikastetxearen funtzionamendura egokitu da. Ikastetxeak Google-en domeinu propioa dauka eta ikasleentzat honen azpidomeinu bat, Hernanibhi.com eta ikhernanibhi.eus dira. Honen bidez "Google Workspace for Education Fundamentals" plataformako aplikazioetara sarbidea daukagu eta administrazio-kontsolaren bidez erabiltzale, gailu eta baimenen kudeaketa egiten dugu.

Bestalde, Hezkuntza sailak gure eskura jartzen dituen irakasle.eus eta ikasle.eus erabiltzaileen bidez Hezkuntzaren Microsoft 365 plataformako aplikazioak erabili ditzakegu.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikastetxeak etengabe aldatzen ari den mundu baten eta gero eta digitalizatuago dagoen gizarte baten parte dira, eta, horregatik, ikastetxeek erantzuna eman behar diete gizartearen premia eta eskari horiei, etorkizuneko herritarrak prestatu ahal izateko, ingurune digitalizatu batean moldatzeko beharrezkoak diren gaitasunekin.

Eskola-antolakunde batean gertatzen diren praktketan teknologiaren erabilera, antolamendu-kontuekin zerikusia dutenetan hasi eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei dagozkienetan amaitu, saihestezina da.

Hezkuntza funtsezko baliabidea da gizarte-berdintasuna bermatzeko, pertsonak sustatzeko eta, oro har, komunitateen eta pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aitortzen du beharrezkoa dela hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak eraldatzea, gaitasun digitalak eskuratzea bermatzeko eta, aldi berean, aukerak aprobetxatzeko.

Ikasturte hasierako Hezkuntza Sailaren ebazpenak, ikastetxe guztiek IPDa egiteko beharra ezartzen du.

Ebazpen horren arabera, IPDak IHParekin (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua) lerrokatuta joan behar du.

Eraldaketa digitala Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuko ildo estrategikoetako bat izango da.

Eraldaketa digitalerako Europak DigCompOrg markoa ezarri du, hezkuntza erakundeentzat. Erreferentzia esparru horretara aldatu/egokitu behar dugu gure jardunbidea. Hortaz, ezinbestekoa da, diagnostiko batetik abiatuta, plangintza bat diseinatzea.

Ikastetxeak urteak badaramatza eraldaketa digitalean aurrerapausoak ematen (Sare Hezkuntza, Heldutasun Eredua), eta garrantzitsua da horri segida ematea.

Egun, inplementatzen ari den curriculum berrian konpetentzia digitala funtsezko konpetentzia da.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Badira ikasturte batzuk ikastetxean digitalizazioaren ibilbideari eutsi zitzaiola, eta digitalizazio-gaietan lanean aritu dela ordutik. Horrek egindako lanari esker, digitalizazio eremuan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira.

Aurten Digitalizazio Batzordea eratu da, eta horrek hartu du IPDa egiteko ardura nagusia. 2022-2023ko ikasturtean zehar IPDa egiten aritu da. Batzordea zuzendaritzako hiru kidek osatzen dute: zuzendariak, ikasketa buruak eta IKT arduradunak.

Aurretik egindako lanetik abiatuta, IPDaren lehen urratsak emateari ekin dio, ikasturte bukaerarako IPDa prest edukitzeko. IPDaren esparrua mugatzeko orduan, DigCompOrg marko europarrean zehazturiko zazpi aztergaiak kontuan hartu dira. Horrek lagundu digu ikuspegi global batetik: gure ikastetxearen errealitatea aztertzeke eta etorkizuneko ekintza planak diseinatzeko.

IPDa egiteko jarraitutako prozedura: IPDaren sarrera idatzi, ikastetxearen analisia egin (SELFIE autoebaluazio tresna erabiliz), SELFIAren emaitzen azterketa, AMIA matriza bete, horren ondorioak atera (ondorioen taula), helburuak definitu (bakoitza bere deskriptore eta adierazleekin), horien lehentasunak finkatu, helburu bakoitzari lotutako ekintzak definitu (epe mugak zehaztuz) eta ebaluazio markoa ezarri (helburuak ebaluatzeko nor (arduradunak), noiz eta nola (ebaluazio moduak).

Ikastetxeko IPDa aurrera eraman eta gauzatze mailaren jarraipena egiteko ardura Digitalizaizo Batzordearena izango da batik bat.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Hezkuntza Sailak 2022/2024 aldirako onartutako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren, eta haren adarra Ikastetxearen Proiektu Digitalaren xede nabarmenena: ikaskuntza eta irakaskuntza, nahiz ebaluazio prozeduretan teknologia digitalak sustatzea. Helburu hori, bat etorriko da ikastetxeak garaturiko ikuspegi eta estrategia pedagogikoarekin. Halaber, estrategia pedagogikoa bera ere baldintzatuko du.

Duela urte batzuk gure ikastetxean abiatutako digitalizazio ibilbideari eutsiz, IPDak eraldaketa digitalean zuzenki eragiten jarraitzen du. Eragin hau, IUPko helburu orokorretan, zehazkiago, ohiko irakaskuntza jardueretan (antolamendua eta funtzionamenduaren aspektuak), programa eta proiektuetan, eta prestakuntza eta garapen profesionalean nabarmentzen da.

IHPari dagokionez, eragin nabarmenena curriculum esparruan izango da: metodologia aukeretan (berrikuntza pedagogikoari lotuak) eta ebaluazio sistemetan (ikuspegi berrikuntza eta tresna berriak). Gelako jarduerari nahiz irakasle/ikasleei lotutako helburuetan ere IPDan zehazturiko eremu digitaleko helburuak islatuko dira.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikastetxearen egoera zein den azaltzerakoan, aipatu beharra dago ikastetxeak baduela estrategia digital bat. Estrategia digitala irakasleekin elkarlanean garatzen dela eta, irakasleek, irakaskuntza-modu berriak azter eta erabiltzeko aukera dutela. Gure ikastetxean teknologia digitalak erabiltzen ditugu beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzean.

Gure ikastetxean, azpiegitura digitalak teknologia digitalen bidezko irakaskuntza eta ikaskuntza sustatzen ditu. Ikastetxean gailu digitalak badaude irakasle-lanean erabiltzeko eta interneterako sarbidea ere egokia da. Arazo teknologikoak ditugunean, hauei aurre egiteko badaude laguntza teknikoak.

Ikastetxean etengabeko garapen profesionala erraztu izan da eta hala izaten jarraitzen du.

Irakasleek hezkuntza-baliabide digitalak bilatzen dituzte interneten, eta sortu ere, sortzen dituzte irakaskuntza-metodoa indartzeko. Teknologia digitalak erabiltzen dira ikastetxeari buruzko komunikaziorako.

SELFIE tresna 7 arlotan definituriko galdetegia da eta ikastetxeari teknologia digitalen erabilera aztertzeko eta haien egoeraren argazki bat izateko aukera ematen dio, irakasleen, ikasleen, eta zuzendaritza-taldearen iritzia kontuan hartuta.

Irakasleei, zuzendaritza-taldeari eta ikasleei egindako galderen bidez, SELFIEk teknologia digitalak ikastetxean ikasteko eta irakasteko nola erabiltzen diren ebaluatzen du.

Zuzendaritza-taldeari zuzendutako galderen ardatza, teknologia digitalen erabilearekin zerikusia duten ikastetxearen estrategia eta praktikak dira.

Irakasleei zuzendutako galderak, batez ere, irakaskuntza-praktikak hautematera bideratuta daude, eta ikasleei zuzendutakoan helburua teknologia digitalen erabileari dagokionez duten esperientzia eta ikasteko praktikak ezagutzea da.

Aztertutako arloen artean, SELFIE tresnaren emaitzetan alde handia ikus daiteke zuzendaritza-taldearen edo irakasleen pertzepzioetan, ikasleekin alderatuta. Hobetzeko arlo bat izan daitekeela ikusten da.

Arloen laburpena aztertuta "Etengabeko garapen profesionala (EGP)" arloak puntuazio baxua izan du zuzendaritza-taldearen aldetik gainerako arloekin alderatuta. Aldiz, "lidergoa" eta "ebaluazio praktikak" arloek jasotzen dute puntuaziorik txikiena ikasleen aldetik eta ondoren "ikasleen gaitasun digitala" dago.

Kolektibo guztietan puntuaziorik onenak jasotzen dituzten arloak "azpiegitura eta taldeak" eta "ikaskuntza eta irakaskuntza" dira. Azpiegituran nahiko gailu daude ikasleentzat nahiz irakasleentzat.

EBALUAZIOA:

Ebaluazio-prozesuei eta tresnei buruzko prestakuntza (errubrikak, portfolioak, ikaskuntza-kontratua...) ebaluazio-prozesua hobetzeko. Egoki ikusten da proposatutako jardueren ebaluazio-prozesua dinamizatzeko eta sekuentziatzeko erabilitako tresnak zabaltzea; beharrezkoa da ebaluazio kualitatiboa egitea, kuantitatiboaz gain, eta ikaslea prozesuaren partaide egitea. Horrek esan nahi du, irakaslearen ebaluazioaz gain, autoebaluazio eta koebaluazio-prozesua sartzea.

ETENGABEKO GARAPEN PROFESIONALA

Arloen laburpena aztertuta, "etengabeko garapen profesionala" arloak puntuazio baxua izan du zuzendaritza-taldearen eta hezkuntza komunitatearen aldetik gainerako arloekin alderatuta. Ikastetxeari arlo hori hobetzen jarraitzea komeni zaio. Gure hezkuntza-komunitatearen barruan teknologia digitalen bidezko irakaskuntzari buruzko esperientziak trukatzeko lagundu behar dugu: egoki ikusten da ikas-egoerak motako proiektuak garatzea, diziplinartekotasunagatik eta baita irakasleen kolektiboaren artean ahaleginak bateratzeko ere, jarduerak diseinatu eta inplementatzean.

LIDERGOA ETA GOBERNANTZA

Irakasleek teknologia digitalean irakasteko metodoa nola hobetu aztertzeko denbora behar dute. Teknologia digitalekin irakastearen eta ikastearen abantailak eta desabantailak buruz eztabaidatzeko ere denbora behar dute.

AZPIEGITURA ETA EKIPOAK

Ikastetxean irakaskuntza eta ikaskuntza materialak dituzten lineako liburutegiak ez daude. Aldiz, irakasleek eta irakasleek behar dituztenerako gailu digitalak badaude. Gailu hauek ikastetxearenak diren edo kudeatzen dituen gailu digitalak dira. Ikastetxean arazo teknikoa sortzen direnerako laguntza badugu.

IRAKASKUNTZA IKASKUNTZA

Teknologia digitalak ikaskuntza erangikorragoa izateko erabiltzeak, irakaskuntza-ikaskuntza praktikak eguneratzea eta berritzea eskatzen du. Teknologia digitala erabiliz, irakasleek ikasleen beharrekina bat datozen jarduerak esleituz, sormena jarduerak eginez eta diziplinarteko proiektuak sustatuz.

AMIA analisia
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Identitate digitalaren kudeaketa. Segurtasun-prozesuak indartzea. Netiketari buruzko formazioa.
Ikasgelan teknologia digitala gehiago eta modu egokiagoan erabiltzeko curriculumari lotutako jarduerak edo proiektuak sortzen laguntzea.
Gailu digitalekin lan egiteko ratioa handitzea, bai gela barruan, bai kanpoan, irakatsi eta ikasteko prozesuari lotuta.
Ebaluazio-prozesuei eta tresnei buruzko prestakuntza (errubrikak, portfolioak, ikaskuntza kontratua...), ebaluazio-prozesua hobetzeko.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Mugikorren erabilera didaktikoa. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan txertaketa.
Euskarazko ikasmaterial digitalen eguneratze geldoa.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
Azpiegitura eta ekipo arloan, egokia, fidagarria eta segurua dago. Elementu horiek irakaskuntza-, ikaskuntza- eta ebaluazio-praktika berritzaileak erabiltzea ahalbidetu eta erraztu dezake.
Teknologia digitalaren erabilpenerako, ikastetxeko langileen formakuntza digitala.
Dagoeneko daukagun baliabide digitalen hedapena eta kudeaketa esperientzia.

Aukerak (kanpo-faktoreak)
Hezkuntza sailak antolatutako berrikuntza pedagogikoaren inguruan Curriculum eta Konpetentzia Digitala.
Baliabide digitalen orokortzea Europar Komisiaok konpetentzia digitalaren inguruan emandako Next Generation funtsei esker.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Ikastetxeko langileen formakuntza digitala oinarritzat hartuz, Hezkuntza sailaren formakuntza baliatuz langileen konpetentzia digitala areagotu.

Azpiegitura eta ekipo arloan baliabide digitalen eguneratzean sakondu kanpoko finantzaketari esker.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Ebaluazio prozesuei eta tresnei buruzko gabeziak berrikuntza pedagogikoaren inguruko formakuntzaz baliatzeko.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Ikastetxeko langileen formakuntza digitala baliatuz, ikaste-irakaste prozesuan behar diren euskarazko ikasmaterial digitalen baliabideak sortu eta eguneratu.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Etengabeko prestakuntza profesionalaren beharraz jabetuta, teknologia digitalaren erabilera sustatu ikas-irakaskuntza prozesuan ohikoak izan daitezkeen tresnak erabiltzeko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Ikastetxeko estrategia digitala garatzea teknologiak ikastetxean integratzeko irakasle-ikas eta administrazio prozesuetan erabiltzeko.

Deskriptorea

LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza

Epea

21/06/2024

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald	Bai/Ez	Bai
LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren f	Bai/Ez	Bai
Proiektu digitala dokumentu batean idatzi da.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Proiektu digitala idatzi	Txantiloia Batzorde digitaleko kideak Selfie for schools	Digitalizazio arduraduna Zuzendaritza Klaustroa	15/06/2023	Egina
IPD ebaluatzeko txantiloia sortu.		Digitalizazio batzordea	30/06/2024	Egina
IPDeko ildo nagusiak UKPan eta HPan sartu	UKP / HP /IPD	Zuzendaritza arduraduna	30/06/2024	Egina
Batzorde digitalizazioak egindako proiektua Hezkuntza komunitateak onartu	IPDa	Zuzendaritza	31/10/2023	Egina

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Ikaskuntzarako teknologia digitalen erabilera bultzatzea, irakaskuntza-ikaskuntza praktikak eguneratuz eta berrituz.

Deskriptorea

II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean

Epea

2506/23

Adierazlea

Mota

Helmuga

II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa egiteko.	Bai/Ez	30/06/2025
II 1.1 A3 Badago egutegi bat, ikastetxean koaderno digitala ezartzeko.	Bai/Ez	30/06/2025
Informazioa bilatu, antolatu, edukiak sortu, argitaratu eta ekoizpen digitalak partekatze aldera, teknologia erabili.	Bai/Ez	30/06/2025

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen koaderno digitala hautatu	Enpresa desberdinen ereduak Irakasleek eskura jarritako ereduak	Zuzendaritza Klaustroa	30/06/2024	Egina
Google Classroom koaderno digital gisa erabili, denboralizazioa aintzat hartuz	Formakuntza saioak	Zuzendaritza Klaustroa	30/06/2026	Prozesuan (%80-99)
Programazioetan txertatu ikasgaietan erabiliko diren teknologia digitalak	Programazioa	BeAk	31/10/2024	Egina
Ikasleei teknologia modu seguru, sortzaile, eta kritikoa erabiltzen erakutsi	Unitate didaktikoak PROKO ikasgaiaren bitartez.	Tutoreak (PROKO), BeAk	30/06/2026	Detektatua
Irakasleek koaderno digitala erabili programazioen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.	Koaderno Digitala	Zuzendaritza BeAk	30/06/2025	Egina
Irakasle eta ikasleak baliabideen ekoizpenean edota berrerabilpenean trebatzea.	Ikastetxeko informatika baliabideak	Zuzendaritza BeAk	30/06/2026	Hasita (%1-19)
Koaderno digitala erabili ebaluazio atala kudeatzeko	Formakuntza saioak	BeAk	30/06/2025	Egina

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakasleen prestakuntza hobetzea, IKTak ikastetxean eta ikasgelan integratzeko beharrezkoak diren gaitasun digitalak eta trebetasunak lortzeko.

Deskriptorea

GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa

Epea

20/12/2024

Adierazlea

Mota

Helmuga

GP 1.1 A1 ikastetxean sartu berri diren irakasleentzako tresna eta aplikazio normalizatuen urteko oinar

Bai/Ez

Bai

GP 1.1 A2 Irakasleen Harrera Planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilerarela

Bai/Ez

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen irakaskuntzarako gaitasun digitalaren hobekuntza ikastaroak egin.	Formazioa: A1, A2, B1, B2...	BeAk	2025/06/30	Egina
Irakasleen harrera planean ikastetxean erabiltzen diren baliabide teknologikoak jaso eta plan digitalaren berri eman.	Irakasleen Harrera Plana	Zuzendariak	2024/06/30	Egina
Ikastetxean erabiltzen diren tresna digitalen inguruko laguntza jasotzen duen espazio bat antolatzea, bertan tutorialak eta bestelako baliabideak eskaintzeko.	Online formakuntza	BeAk	2026/06/30	Prozesuan (%60-79)
Selfie for teachers	Galdetegia	Zuzendaritza	2025/06/30	Egina
Irakasle eta ikasleak telefono mugikorren eta erloju adimentsuen erabilera arduratsuaren araudia ezagutu eta bultzatzu.	Irakasleentzat formakuntza. Ikasleentzat formakuntza.	BeAk	30/06/2025	Egina
Datu Babesaren legearen ezagutza.	Irakasleentzat	BeAk	30/06/2026	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Sarean eskuragarri dauden ebaluatzekeo tresna digitalen erabilpena bultzatzea, ikasleen aurrerapausuak neurtzeko.

Deskriptorea

EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da

Epea

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.2 A1 Ikasgaien % ... tan ikasleek lineako probako teknologiak erabiltzen dituzte, berehalako itzulera	Bai/Ez	2025/06/30
EJ 1.2 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tekn	Bai/Ez	2025/06/30
EJ 1.3 A1 Ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuak garatzeko erabiliko diren teknologia dig	Bai/Ez	2025/06/30

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen hausnarketa eta autoebaluazioa bideratu	Galdetegiak	Ikasketa burutza eta mintegiburuak	2025/06/30	Egina
Errubrika banku bat sortzea, mailaz maila eta ikasgaiz ikasgai	Txantiloak	BeAk	2025/06/30	Egina
Programazioetan konpetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluatzekeo irizpideak jasotzea.	Programazio txantiloak	BeAk	2026/06/30	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua		
Egungo curriculum berria ezartzearekin bat, ikasleen gaitasun digitalaren profila mailaka, programazio didaktikoetan txertatuz.		
Deskriptorea	Epea	
EC 2.6 Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenaren ibilbidea	Bai/Ez	2025/06/30

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Programazioetan konpetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluatzeko irizpideak jasotzea.	Programazioak, errubrikak	BeAk	2026/06/30	Detektatua
Mailaz mailako konpetentzia digitala zehaztea	Curriculumeko irteera profila	BeAk	2024/06/30	Egina

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua
Sareko lankidetzaren prozesuetan eta gure ikastetxeko hezkuntza-komunitate digitala eraikitzen aurrera egitea, ikastetxeko plan digitalaren eta kanpoko eta barneko komunikazio-planaren bidez.

Deskriptorea	Epea
EN 3.2 Pertsonala eta ikasleak elkarrekin aktiboki parte hartzea bultzatzen dira	2025/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 3.2 A1 Ikastetxeak harrerari, tutoretzari eta orientazioari buruzko eguneratze-bitartekoak eta -prozi	Bai/Ez	2025/06/30
EN 3.2 A2 Ikastetxeak atal bat du bere webgunean, familiei zuzendua, eta bertan IKASGUNEa plataforma	Bai/Ez	2025/06/30

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeko webgunea antolatzeaz eta eguneratzeaz arduratu dadin pertsona bat izendatzea.	Webgunea	Zuzendaritza	2024/06/30	Egina
Ikastetxeko webgunea etengabe eguneratu.	Webgunea	Digitalizazio batzordea	2024/06/30	Egina

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Ikastetxean eskuragarri dauden espazio fisikoak, ekipamenduak areagotzea eta hobetzea , ezinbestekoak baitira proiektu digitalarekin aurrera eramateko.		
Deskriptorea		Epea
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak		2025/06/30
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.1 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	2024/06/30
AZ 1.1 A2 Irakasleen harrera-dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko	Bai/Ez	2024/06/30

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Eguneratu ikastetxeko atala	Sitesean, Google Calendar	IKT arduraduna.	Urtean zehar	Prozesuan (%80-99)
Irakasleen harrera dokumentuan txertatuko da matxura, gorabehera eta kudeaketa protokoloa	Sitesean , Google doc	IKT arduraduna.	Irailean	Egina
Ekipamendu informatikoaren inbentarioa eguneratu	Hezkuntzako aplikatiboa eta kalkulu orriak	IKT arduraduna.	Urtero	Egina

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Deskriptorea

Epea

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastetxeko estrategia digitala garatzea teknologiak ikastetxean integratzeko irakas-ikas eta administrazio prozesuetan erabiltzeko.	2024/05/28	Batzorde Digitalean, bileran aho batez erabakia.	Batzorde Digitaleko kideak : Alizia Zabaleta, Susana Balerdi, Lide Ferreira, Irune Jaca.	Egina	
II	Ikaskuntzarako teknologia digitalen erabilera bultzatzea, irakaskuntza-ikaskuntza praktikak eguneratuz eta berrituz.	2024/05/28	Batzorde Digitalean, bileran aho batez erabakia.	Batzorde Digitaleko kideak : Alizia Zabaleta, Susana Balerdi, Lide Ferreira, Irune Jaca.	Prozesuan (%40-59)	2025-2026 ikasturtean jarraitu eta amaitzeko aurreikusia.
GP	Irakasleen prestakuntza hobetzea, IKTak ikastetxean eta ikasgelan integratzeko beharrezkoak diren gaitasun digitalak eta trebetasunak lortzeko.	2024/05/28	Batzorde Digitalean, bileran aho batez erabakia.	Batzorde Digitaleko kideak : Alizia Zabaleta, Susana Balerdi, Lide Ferreira, Irune Jaca.	Prozesuan (%80-99)	Ikastetxean erabiltzen diren tresna digitalen inguruko laguntza jasotzeko espazioak antolatuko dira 2025-2026 ikasturtean zehar.
EJ	Sarean eskuragarri dauden ebaluatzeko tresna digitalen erabilpena bultzatzea, ikasleen aurrerapausuak neurtzeko.	2024/05/28	Batzorde Digitalean, bileran aho batez erabakia.	Batzorde Digitaleko kideak : Alizia Zabaleta, Susana Balerdi, Lide Ferreira, Irune Jaca.	Prozesuan (%60-79)	Programazioetan konpetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluatzeko irizpideak jasoko dira 2025-2026 ikasturtean zehar.
EC	Eguno curriculum berria ezartzearekin bat, ikasleen gaitasun digitalen profila mailaka, programazio didaktikoetan txertatuz.	2024/05/28	Batzorde Digitalean, bileran aho batez erabakia.	Batzorde Digitaleko kideak : Alizia Zabaleta, Susana Balerdi, Lide Ferreira, Irune Jaca.	Prozesuan (%60-79)	2024-2025 ikasturtean jarraitu eta amaitzeko aurreikusia.
EN	Sareko lankidetz-prozesuetan eta gure ikastetxeko hezkuntza-komunitate digitala eraikitzen aurrera egitea, ikastetxeko plan digitalen eta kanpoko eta barneko komunikazio-planaren bidez.	2024/05/28	Batzorde Digitalean, bileran aho batez erabakia.	Batzorde Digitaleko kideak : Alizia Zabaleta, Susana Balerdi, Lide Ferreira, Irune Jaca.	Egina	
AZ	Ikastetxean eskuragarri dauden espazio fisikoak, ekipamenduak areagotzea eta hobetzea , ezinbestekoak baitira proiektu digitalarekin aurrera eramateko.	2024/05/28	Batzorde Digitalean, bileran aho batez erabakia.	Batzorde Digitaleko kideak : Alizia Zabaleta, Susana Balerdi, Lide Ferreira, Irune Jaca.	Egina	Klaustroko siteko dokumentu orokorrak berrantolatu.

IB					
----	--	--	--	--	--